

Nafarkaria


Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko urriak 15 / III. urtea / 97. zenbakia

Aralarko Parke Jurasikoa

Jurasikoa, eta Urgonianoa, Senonense, Maektritiense eta ezin konta ahala aro geologiko biltzen dira Euskal Herriko bihotzean dagoen mendizerra honetan. Hori aztertzeko bildu dira asteburu luze honetan Euskal Herri osoko espeleologoak, Lizarrako Ekologista Taldeak antolatutako jardunaldietan. Lau egunetan, Ormazarreta eta Larretxikiko leze famatueta lurraren sustraiak azaleratu eta ezagutzen ahalegindu dira, eta helburu guztiak bete ez badira ere, garrantzitsuena —euskal espelelogoen arteko ezagutza bultzatzea— lor-

tu egin dela esan daiteke. Kaskoak jantzita, aluminiozko mantak eta karburoa soinean, satorren planta dutela diote askok, baina beraiei lurraren baitan egoitearen barne poza gelditzen zaio, nonbait.

Kaskoa, karburoa eta zorroa, hurrengo jardunaldien zain.
ALBERTO BARANDIARAN



Bi hormetara



JOSETXO AZKONA

Bai, jakin badakit goizegia dela Eguberriek mintzatzen hasteko, matraka kontsumista berez helduko baita lasterrean, baina, hala ere, gertakizunak merezi duelakoan nago. Aurtengo Eguberriek badute nobedaderik Iruñean: Takonerako Belen Elektrizakoa, alegia. Jenialkeria, nola ez, gure gizon-ema-kumezkorik gertuenei dagokie: zein eta, tamaina haundiko irudiez osaturiko Belen bat Takonerako fosoetan paratzearena. Aurrekontua, bi milioitik gorakoa. Huskeria, Sevilla eta Santiagoko ospakizunetan gertatu behar izan dutenarekin alderatuz gero. Gainera, xeheki aztertutako dituzte oztopo guztiak. «Demagun oreinak harrotzen direla, ba... pikutara bidal dituzakete irudiak adarkadaz, San Jose-rena, esate batera. Untxi emalduek, bestetik, kumeak egin ditzakete Jesus Hauraren seaskatxoan, eta honez gain, kaka eta pixaz ere likis litzakete Errege Magoen erregaliak... Halako itsuskeriarik gerta ez dadin, hesi elektriko batekin egokituko ditugu Belengo hogeitahiru irudiak, piztiek ikara bat soilik izan dezaten. Beraz bada, ez dago ezertan ere kezkatu beharrik. Gu ere ekologistak baikara oso, eta zientifikoki neurtu nahi ditugu arrisku guztiak».

Gure Udaleko Kurtsileria Saileko arduradunek —sailik oparoena, duda gabe—, uste dute, finean, ez dela horrenbesterako izango. Ahate, untxi, pauma eta oreinek jasango duten dardara ez baita inondik inora heriotz-kondenatu bat hiltzeko edo disidente bat torturatzeko erabili ohi den bezainbatekoa izango. Teknikariek ongi egokitu dute deskarga. Gehien-gehienez, etxeko entxufe baten konponketan sufritzen den bezalakoxea izatea espero da.

Burua oraindik ere bi belarren artean eraman nahi dugun iruñearrok ez dugu halako punizioerik merezi; egia garbi esateko, behin edo beste pekatu larriarik egin badugu ere.

Hiriaren gobernabilitatea UPNren esku jarri zenetik —oposizio taldeen onespen inplizitoaz, ez dezagun inoiz atzendu—, geroz eta memeloagoa da gure hiria, geroz eta txiroagoa da bere 'civitas' giroa, eta geroz eta erridikuloagoa da gure agerpen ofiziala. Ederki gozatuko zuen Pio Barojak egungo Iruñean!

Nola nahi den, irriagoa izan zitekeen udalaren azken jenialkeria. Las-tima, 'Belen-aren' antolakuntza don Santos Begiristaini eman ez izana, ze, Obanosen egin duen gisa berean, kar-toizko irudiak Takoneran paratzeko partez, Alfredo Jaime eta Maribel Beriain —San Josez eta Ama Birjinaz— jantziko baitzituzkeen, guzcion gozamenarako. Orduan joango nintzen Belena ikustera... Keba, ezta hola ere!

Gure aukerak

ERAKUSKETAK

Patxi Ezkieta pintore nafarren bi erakusketa ikus daitezke egun hauetan Iruñean, bata Nafarroako Museoan, urriaren 17a arte, eta bestea Kribia Galerian, 30a arte. Erakusketa hauetan, artistak Marokkon egindako azken lanak daude ikusgai.

Ramon Roig artistaren erakusketa zabalik dago Iruñean, Aurrezki Kutxa Muzikazaleen Gotorlekuan duen aretoan. Bere lanak ikusteko ordutegia hauxe da: lan egunetan, 19.30etatik 21.00etara, eta jai egunetan, 12.30etatik 14.00etara.

P.Azketa, X.Morras, M.Royo, L. Garrido, P.Oses, A.Sada, Julio Pablo, J.Resano eta P.Salaberriren erakusketa egonen da ikusgai, urriaren 29a bitarte, Iruñeko Pintzel galerian.

ZINEMA

'La madre' izeneko pelikula botako dute asteartean, urriak 19, Olite zinemetan. Zine Sobietarra zikloaren barruan, Nafar Ate-neoak antolatu du. Arratsaldeko 20.00etan hasiko da.

MUSIKA

Balerdi-Balerdi, Pottoka eta Los Dinosaurios musika taldeen kontzertua dago bihar larunbata, urriak 16, Zubietako pilotalekuan, gaueko 10.00etan hasita.

Urtz eta Ezin Uka musika taldeekin gaupasa izanen da bihar larunbata, urriak 16, Beteluko plaza berrian, herriko udaletxeak antolatuta. Gauerdian hasiko da eta sarrera dohainik izanen da.

BERTSO SAIOAK

Estitxu Arozena, Iñaki Murua, Sebastian Lizaso eta Mañukorta bertsolariak ariko dira bihar larunbata, urriak 16, Sunbillako ostatuan, gaueko 21.00etan hasita, bertso afaria baitago.

Mañukorta eta Lizaso zaharra bertsolariak ariko dira igandean, urriak 17, Beteluko plaza berrian. Bi saio izanen dituzten, bata bazkal aurretik eta beste arratsaldean, 18.30etan hain zuzen.


ANTZERKIA

'Kiki, Koko eta Moko' antzez-lana eskainiko du Azkona taldeak gaur, urriak 15, Antsoainen. Herriko Ezkaba ikastetxean izanen da, arratsaldeko 15.00etan hasita. Sarrera dohainik.

Irulegiko gaztelua

Iruñerriari buruzko azalpen ugari izan dira historian zehar: nondik nora doan, zenbat herri hartzen duen, zabalera eta abar... Batzuen arabera Iruñeko katedralaren Maria ezkila nagusia aditzen den tokia da Iruñerria. Beste batzuen arabera bazkaltzeko ordua da erabakigarria: Iruñera garaiz heltzen bada toki batetik, hori Iruñerrian dago (mende honen hasierako argudioez ari gara). Vianako Printzearen Erakundeak 'Cronica' liburuak, bere aldetik, Lakidaingo atakatik Belaskoaingo zubira bitarte. Bertara hurbiltzen denak segituan antzemango du Iruñerria benetan zer den, garbi asko nabarmentzen baitira mugak eta ertze guztiak.


Ibilbidea Ilundaindik (Araguren) ateratzen da, Lakidainera doan bidea hartzeko. Haur da ekialderuntz joanda Iruñerriko herriak urrunena. Eliza ondok mendiruntz doan bidea hartu eta Lakidaingo atakara helduko gara. Bertan nagusi dira ameztiak, gizakumearen jardura somatu baino lehenagoak, hain segur, eta egun nahastuta dago pagadiekin. Hegazti kopuru izugarri altua dute baso hauek, eta arranoetatik



txepetxeraino aurki daitezke. Hortik segituan antzematen da Irulegiko gazteluaren tokia. Gaur egun Lakidaingo mendia, besterik gabe, deitzen dute ton-tor hau, eta Arangurendarrek 'gaztelua' soilik, izen historikoa aipatu gabe. Bi Irulegi izan ziren Nafarroan, biak desagerturik gaur egun. Bata Araitzen zegoen, eta bestea gaurkoa. Funtsezkoa zen Iruñea eta beste gazteluen arteko lotura gisa. 1494an erregeek suntsitu zu-

ten, Leringo jendea zigortzeko. Inguru honetan, bereziki Arangurena eramaten duten magaletan, nagusitu dira pinu gorriak, Nafarroa osoan zabal-tzen ari den espezie baita hona-koa. Kaskotik jarraituta Lizarragako atakara helduko gara, bestaldean Izagaondoa eta Idoate nabarmentzen diren bitartean. Atakatik bera Lizarragako bidea hartu behar dugu, nahiko garbi eta argia, berriro Ilundainera haldu arte.

ASTEKO PERTSONAIAK



Patxi Eugi
Pilotaria



Mikel Bujanda
Kazetaria



Mikel Rekalde
Intsumisora

Binakako Txapelketan, oraindik behintzat, ez du parte hartuko Patxi Eugi. Gau txarra igaro omen zuen joan den asteazkenean, eta ondoezik jaiki ostean, medikuarengana jo zuen. Aztertu eta gero, eskubiko eskuaren tendoiak erabat hazita ditu, eta hiru asteko atsedendia hartu beharko du. Beraz, bihar Bergaran zuen partidua ez du jokatzetik izango, eta bere orde, Alfredo Balerdi Lizarragako ariko da Ladis Galarzarekin batera. Gainera, Klinika Unibertsitarioko medikuak esan zuenez, bere aginduak betetzen ez baditu, eskuan duen lesioa kroniko bihurtu daiteke. Okerreko bidetik hasi da Binakako Txapelketa hau, bikote garrantzitsu bat desegin baita. Bazegoen Galarza Eugirekin ikusteko gogo, agoizkoa joko bolada onean ez zegoela jakina izan arren.

Euskalerria Irratiak aurkeztu du aste honetan aurtengo programazio berria, egunero bost ordukoa hain zuzen. Irrati lokal honen asmoa, Iruñerrian euskaraz dagoen bakarra, euskara zabaldu eta euskaldun guztietara iristea da, hemen inguruan gertatzen denaren berri emanez. Jakina denez, oraindik legez kanpo dago irrati, orain dela hiru urte egindako eskaintzan lizentziarik gabe utzi baitzuen Gobernuak. «Baldintza guztiak beteak ditugu legalak izateko, baina ez digute kasurik egiten», adierazi zuen Mikel Bujanda irrati burua. Hala ere, orain, ahalegin handienak irratigintza hobetzen egin behar dituztela azpimarratu zuen, beste gaiak ahaztu gabe. Programazioari dagokionez, iaz baino ordu bate gehiago emitituko dute, programa berriak sortuz.

Joan den asteazkenean hamabost intsumisoren epaiketa zeuden iragarrita Iruñeko Entzutegian. Azkenean, hamaika ospatu ziren, hiru gazte azaldu ez zirelako, eta laugarrena urriaren 19an egitekoa, atzeratu zutelako. Arrazoia zera izan zen, Mikel Rekalde Beteluko intsumisora euskaraz egin nahi zuela epaiketa, eta itzultzaileak aurkitu ez zuten, atzeratu egin zen. Goiz osoa itxaroten igaro ondoren, itzultzailea Madrilen zegoela esan zioten, eta bi aukera zituela, erdaraz epaitu edo beste egun baterako utzi. Azkeneko hau erabaki zuen. «Sentitzen dut laguntzera etorri direnak hainbeste denbora itxaroten egon direlako, baina nik euskaraz egin nahi dut, oso garbi daukat». Berak, beste guztiekin batera, epaiketak «fartsa» hutsak direla zioen.

AHAZTU GABE!

EUSKARAREN aldeko Jaialdi Handia eta beste ekitaldi batzuk izanen dira asteburu honetan Burlatan, bertako Euskara Zerbitzuak antolaturik, Udazkeneko Kultur Zikloaren barruan. Gaur bertan hasiko da egitaraua, Zanzanzar Txikia eta Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen saioarekin. Arratsaldeko 18.30etan hasiko da Eugenio Torres plazan edo Hilarion Eslava II Ikastetxean, euria egiten badu.

Bihar, urriak 16, Burlatako Txistulariak, Gaiteroak eta Larratz dantza taldearen saioa izanen da, arratsaldeko 19.30etatik aurrera, Elizako plazan. Ondoren, Drindots musika taldearekin dantzaldia antolatu dute.

Igandean ere ekitaldi ugari daude. Eguerdiko ordu batean eta Elizako plazan, San Blas Abesbatza, Larratz eta Har-tzara dantza taldeak eta Axular Fanfarrea ariko dira. Ondoren, herri bazkaria antolatu dute.

Askatasuna pilotalekuan, eguerdiko 14.30etan hasiko da. Arratsaldeko lauak aldera, Euskararen Aldeko Jaialdi Handia izeneko hasiko da, asteburuko ekitaldi bereziena. Unai Agirre eta Aitor Mendiluze bertsolariak eta Burlatako txistulariak, gaiteroak, dantzariak, abeslariak eta metal-taldearen partehartzearekin.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostira-lera, **'Zokobetailu'** goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazken zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkar-rizketak.

'HELDUEN ORENA' Irati irratiak ostegunetan egiten duen saioan Californian bizi diren euskaldunen bizitzari buruz hitz egiten dute. Horretarako, Jesus Pedrarena Garraldako semea baina EEBBetan bizi denarekin elkarriketa-tuko dira. Pedrarena Californiako euskaldunen elkarte (NABO) idazkaria da, eta zehaztasun ugari emanen ditu saioan.

Lerako txakurren lasterketa

PATXI ULAIAR / IRUÑA

Bihar eta etzi jokatu da Lesakan II. Lerako Txakur Lasterketa. Beti Gazte elkarteak antolatuta. Hogeita bi partaide bilduko dira lau mailatan, Igeritokie-tatik atera eta Fraingo auzotik abiatuko den ibilbidea zeharkatzeko. Partaideak Euskal Herrikoak ezezik Bartzelona, Huesca eta Soriakoak ere izanen dira, eta txapelketa ofizialen barruan ez bada ere, neguan izanen diren lasterketa garrantzitsuak behar bezala prestatzeko balio izaten zaie zaletuei.

Lau mailatan daude sailkatuta partaideak: lehen maila, hau da, txakur bat mendiko bizikletatik tiraka; C-1 izeneko, siberian husky arrazako lau txakurrekin; C-2, hau da, lau txakurrekin, baina samoyedo, malamute edo groenlandiar arrazakoekin eta A maila, zortzi-bederatzi txakurrekin. Gehienak, ohi den moduan, C-1 izeneko mailan ariko dira. Lasterketa bi egunetan banatuko da, eta larunbatean arratsaldeko 3.30etatik aurrera izanen da lehen txanda, eta igandean, goizeko 9etatik aurrera bigarrena.

Hau izanen da Euskal Herrian antolatzen den lehen lasterketa, kirol hau oso berria baita. Koiki-
li Fagoaga lesakarra bultzatze nagusienetakoa izan da, eta ia z bigarrena gelditu bazen ere,



Lerako txakurrek Alaskan dute jatorria.

«txakurrekin entrenatzerik ez bainuen izan», aurren «irabazteko asmoz» ekingo dio lasterketari.

Lasterketak, jakina, elurraren gainean egiten ohi dira, baina elur eskasiak eta txakurrekin aritu beharrek belar gainera edo mendira ere zabaldu dute Alaskan jatorria duen kirol hau. Horretarako txakur eta bizikleta batekin nahikoa da, baina benetako gozamen,

diotenez, hiru bat txakur eta lera batekin izaten da. Bertan erabiltzen dira txakur onenak —siberian huskyak—, eta bakarrik hiru txakur izateak gidaria ere behartzen du laguntzera. Horrela lortzen da kirola eta abentura, gozamen, batzea. Kontrakoa iruditu arren, zortzi bat txakurrekin ari-tzea motelagoa da, eta erresistentzia handiagoa lortzen bada ere, askoz ere zailagoa da lera erama-

teko, bistan denez.

Txakurren entrenamendua erresistentzian zein sprintean egiten da, tarteka, eta belar gainean edo pistetan aritu beharrek sortzen dituen orbainak eta ubeldurak saihesteko, eskularruak paratzen zaizkie txakurrei hantketan. Hala ere, asko entrenatuta ere, txakur ona denari segituan antzematen zaiola diote adituek, «eta zail dira aurkitzen».

Iruña

Mitoei buruzko jardunaldiak

P. U. / IRUÑA

'Mito, Erritu eta sineskeriak' izenburupean, IX. Folklore eta Kultura Tradizionalari buruzko Jardunaldiak ospatzen ari dira egunotan Nafarroako Museoan, Ortazar Euskal Folklore Taldeak antolatutik. Asteazkenean hasi baziren ere, Alberto Arin-tzibia eta Joxe Ulibarrenak paratutako erakusketarekin, atzo izan zen benetako hasiera, Maria Teresa Navarro Salazarrek Teodosio Goñikoren leindari buruz aurkeztutako txostena eta Andres Ortiz-Osesek eta Jose Maria Satrustegik emandako hitzaldiekin.

Gaur eta bihar izanen dira, baina, egunik garrantzitsuenak. Gaur hiru txosten aurkeztuko dira, arratsaldeko 19.30etatik aurrera. Joxemiel Bidadorrek 'Euskal formulakuntza erriualaren hurbiltze baterako' izeneko es-kainiko du; Pello Iraizotzek 'Zuhaitzaren sinbolismo sakratua euskal kulturean' eta Alfredo



Sinismena euskal kulturaren oinarrietako bat da.

Asiainek 'Iniziazio errituak Nafarroako kontakizun folklorikoe-tan' izeneko. Ondoren Eugenio Monesmak bideo etnografikoaren emanaldia eskainiko du.

Bihar, larunbata, eta goizeko 9etatik aurrera, hamar txosten

aurkeztuko dira eta horien artean azpimarratzekoak dira Jose Antonio Quijaren 'Su-ur binomioa euskal mitologian' izeneko, edota Angel Goikoetxearen 'Emankortasunari buruzko nekazaritza errituak' deritzona.

Etxalar

'Usategietako Eguna' antolatu du Altxata elkarteak

P. U. / IRUÑA

Asteburu honetan ospatuko da 'Usategietako Eguna', Altxata Kultur Elkarteak, herriko gazteek eta Udalak antolatutik. Larunbatean kontzertua izanen da gaueko 10etatik hasita, Etxalarko plazan, eta bertan 'EH Sukarra', 'Hor Konpon' eta 'Amets Gaizto' izanen dira. Ondoren, berbera, 'Izan' taldearekin. Igandean, goizeko 9.30etatik aurrera, mendi ibilaldia antolatu dute, gaupasaz gozatzeko gogoia edo indar nahikoa izan ez dutenentako. Etxalartik atera, Zentinela eta Peña Platatik Usategietara helduko dira, Etxalarrera berriro jaisteko. 16 kilometroko ibilaldia, lau orduz egitekoa. Arratsaldean, 17.30etan, Gure Txokoa Berako Dantza Taldeak emanaldia eskainiko du plazan, eta asteburua bukatzeko 'Egan' taldeak giro-tuko du arratsaldea, 19.00etatik aurrera.



LIZARRAko ikastolaren Kirol Kultur Elkarteak antolatu duen Gazteendako VII. Euskararen Eguna ospatuko da bihar, larunbata. Ekitaldiak, hala ere, gaur bertan hasiko dira, arratsaldeko zortzietan Oncinedako antzerki taldeak Barojaren 'Jaun de Alzate' obra eskainiko baitu. Larunbaterako antolatu dituzten ekitaldiak, berriaz, goizeko hamarretan hasiko dira, ordu horretan egingo den lasterketarekin, hain zuzen ere. Ondoren, arratsaldeko ordu batean mus, xake eta partxis txapelketak izango dira eta bostetatik aurrera, saskibaloia, futbito eta pilota partiduak. 21.00etan, berriaz, herri afaria egingo dute Lizarrakoek eta 22.30etatik aurrera, dantzaldia izango da 'Amalgabe' taldearekin. Egun guztian egingo diren txapelketen sariak banatuko dira ere, gaueko 23.30etatik aurrera. Al Askaren jaialdiak emango dio amaiera Gazteendako VII. Euskararen Egunari.

TUTERAko Fronton Kirol Elkarteak lanean ari da piraguismoa berreskuratzeko, orain dela bost urte desagertu eta gero. Orain berriro 40 haur eta gazte inguru hasi dira entrenatzen Fronton Elkarteak eskuratu dituen hamabi piraguetan. Beste hamahiru ere konpondu egin dituzte eta hauekin batera, eserlekuak, palak, eta konponketak egiteko tresnak erosi dituzte. Juan Andres Marmol da piraguismo atal honen zuzendaria.



BELTZUNTZEN alokatua duen etxearen ondotik zazpi katu gazte eta hiru txakur hilda aurkitu du Animalien Babesarako Elkarteak, eta hilketak salatatu. Bertan egokitu behar dute euren egoitza elkarrekoek eta hori dela eta, jendeak bertara eramaten dituen animaliak, txakurrak edo katuak, gehienbat. Hau, bestalde, ez dute begi onez ikusten herrikoek eta horren ondorioz gertatu dira, Animalien Babesarako Elkarteak adierazi duenez, hilketak hauek. Elkarteak bere haserre adierazi du gertatutakoarengatik eta Beltzuntzen hartu duen etxearen helburua, «izaki bizi guztien-ganako errespetua» bultzatzea dela azpimarratu du. Era berean, «animaliak babesteko dituen legedi edo araudirik ez dagoenez», animaliak edozein lekutan uzten dituzten jabeek inolako zigorririk ez dutela jasotzen nabarmendu eta salatatu du Elkarteak.



Lur azpian ikusitakoa paperean isladatu behar da azaleran.

ALBERTO BARANDIARAN

Orduak eta orduak ematen dituzte lur azpian, sustraiak miatzen, eta asteburu luze honetan egon dira Aralarren, berez ezkutua dena azaleratu nahian. Euskal He-

rri osotik etorriak, ez zuten helburu guztiak bete, baina, ezinbestez, lur azpian bederen lurrak berak agintzen baitu. Sator lana eginda ere.

Sator zientzilariak

ALBERTO BARANDIARAN / ARALAR

Aurpegi nekatuak eta gorputz makurtuak baina pozik, beti ere. Astearte gauez biltzeko eguna zen, lan neketsuena eta baita lehendabiziko emaitzen berri ematekoa ere, egindakoa lasaitasunez begiratu eta aztertzea. Ez zen lortu helbururik nagusia—edo gogo nagusia, espeleologian helburuak, inon baino gehiago, naturak agintzen baititu—, eta Ormazarrateko leze izugarri horren akaberran zegoen ditxosozko sifoien bestaldean zer dagoen eta pasatzerik dagoen jakin gabe gelditu dira berriro ere.


Ez da erraz azaltzen ahal zertarako eman dezakeen pertsona batek 17 ordu lur azpian, hormaturik, blai eginda eta nekatuta, «miseria gorrian», beraiek esaten duten bezala; zertarako hainbeste neke, gero gauez ateratzeko, eta, akaso, egunsentiaren zain egoteko, aterperako bidea ez baita inondik inora antzematen. Nekez azaldu daiteke sator lan honek—esamoldeak daukan azeptzio positibo bakarrenetakoa—ematen dituen barne pozak, eta, hala ere, espeleologoek badute azalpenik. Edo bilatzen diote. «Jakina, kirola bada, eta gainera ikusgarria, normalean egiten denetik kanpo, abenturarekin eta guzti. Baina horretaz gain arlo zientifi-

koa ere lantzen da, zerbait gehiago bilatzen zaio». Koldo Sansinenea Donostiako Arantzadi Elkarteko beteranoa da lurraren sustraiak miatzen, eta jardunaldi hauetan egin den esperientzia garrantzitsuenean parte hartu du.

Bi eremu zituen aztertzeke Aralarreko Guardetxan finkatu den espeleologi talde anitz honek, eta horietako bat Aralarren dagoen leze handienaren sako-

neko ikerketa. Nolabait azaltzeko, Aralarrek lur azpiko zenbait ibai eta ur-sistema dauzka, bere erreka, eta lakuekin. Ormazarrateko ibai garrantzitsuenetakoa landutako lezea, eta Atauen ateratzen da azalera, jaio eta 800 metro beherago. Lezea 530 metroko sakoneraino zegoen aztertuta baina hor bidea oztopatzen zuen sifoia—urez betetako zuloa—gaindiezina zen.

Horretarako aipatu tokian kanpamendu bat paratu zuten espeleologoek eta igandean talde bat jaitsi zen, miaketa egiteko. Bertan lo egin ondoren, lanari ekin zioten, baina emaitza ez zen espero zutena izan. «Ez dugu lortu, oso erraza ere ez delako. Gure asmoa zen sifoia goitik gainditzea, beste bide bat aurkitzeko, baina oztopoak gaindiezina egin zaizkigu».



Materialaren bilketa izaten da lan neketsuena.

A. B.

Bertaraino heltzeko zortzi orduko bidaia egin behar dute espeleologoek, ibaiak 6,5 kilometro inguruko luzera baitauka siforaino. Bertan ere egon zen Miguel Cenicerós lizaratarra, baina bera ibaitik gora zegoena miatuz aritu zen. «Ezaguna baino aztertu gabe zegoen galeria bat miatu dugu, eta beste leze bateraino heldu gara. Behean ibaia entzuten zen berriro». 530 metrotara lo egitea «gauza handia» dela dio, eta erreparorik ez du «primeran» egon dela esateko. «Oso konplikatu eta nekosoak litzateke bertaraino jaitsi, lan egin, eta berriro igotzea, eta zortzi orduren buruan lo egitea estimatzen da, hurrengo egunean lanean poliki aritzeko».

«MISERIA HOR BEHEAN» Hala ere, denek onartzen dute gogorra dela, hotza, nekea

eta batzutan arriskua nahasten direlako. «Guk miseria deitzen diogu horri, eta frankotan sumatzen da hor behean. Batez ere gelditzen zarenean, nekearengatik edo, gogorra egiten da berriro hastea, hoztu egiten baita gorputz osoa». Hori dela eta, oso garrantzitsua da sasoiaren egotea, eta esperientzia ezak berez zaila dena konplikatzeko du franko. Astelehenean, kasu, kanpamendutik zetorren gazte talde baten partaide berri batek izugarrizko behe-rakada izan zuen leze barruan, eta ez aurrera ez atzera gelditu zen. «Lezeak gainditu zuen» dio Kiko Goñi taldearen partaidea. Kasu hauetan, aluminiozko manta soinean jarri eta animatu egin behar dela dio espeleologo gazte honek, baina azkenean bere kabuz atera ahal izan zuen, ongi erreuperatu baitzen. Lagun bat gelditu zen bere ondoan, eta besteak janari eta te bila atera ziren azalera. Lezearen sarre-ara itzuli zirenean, baina, atera ziren biak.

Eta zertarako hainbeste neke eta ahalegin? galdetuko du norbaitek. Erantzun ezberdinak dira, galdetzen zaionaren arabera, baina ez dago edonor konbentzitu dezakeenik, berez erakargarria egin dezakeenik. «Mendia erakargarriagoa da, noski» dio Kiko-k, «espeleologia, berez, beltza baita. Jendea ez zaio gustatzen zulo batean sartu eta zerri bat bezala ateratzea, gauez, eta nekatuta». Beste batzuek zientifikoki duen baliagarritasunari atxikitzen diote. «Guk egindako lanari esker» azaltzen du Sansinenea, «gero eta hobeto ezagutzen da lur azpiko ur eta ibaien sistema, eta horrek ondorio praktikoa dakartza. Adibidez, duela gutxi Gipuzkoan urtegi txiki bat egin ahal izan zen Aralarreko urak urte osoan aprobetxatzeko, espeleologoek ikertutakoari esker».

Ez dira, baina, jende asko erakartzeko argudioak, eta taldeek zailtasunak dauzkate partaide berriak lortzeko. Askori gogo-koagoa baitzaio, izan ere, azala azpikoa baino.

Espeleologoak



Aralarren

mintzoak

Andres Irujo, ekin eta ekin

● Nafarroan jende anitz harriturik gelditzen zen 1936ko gerra aurreko urteetan Manuel Irujo, aldi berean leku askotan egoteko eta arazo askori aurre egiteko omen zuen ahalmenarekin. «Irujo etorri da», «Irujo mintzatu da», «Irujoren esku dago» bezalako erranenpean izkutatzen zena ez zen on Manuelek erdietsitako gaitasun mirakulutsu bat, famili oso baten ekintza eta aktibitateen isla baizik.

Izan ere, Nafarroa mailan, ez da inolako gehiegikeria erratea, gure gizaldiaren bigarren hamarkadaz geroztik, euskal abertzaletasunaren historiak eta famili honetakoak bat egin dutela. Bilakaera hauetan II. Errepublikako ministroa izan zen Irujotarik zaharrena ihardura politikoa eza-gunena bilakatu bazen ere, gainontzeko anai arrebe bu-ruturiko lanak ez ziren batere makalak izan. Eskualde honetako orduko gertaera politiko zein kulturetan, batez ere esparru euskaltzalei begiratu zergo, sarritan, Irujotar batekin edo bertzearekin egiten dugu topo.

Hauen artean, orain dela zenbait egun Buenos Aireseko erbestean hil den Andres, aktiboenetako bat gurean. Bere gainontzeko senideak bezalaxe, Lizarran ere, munduratu zen 1907ko azaroaren 30ean. Zuzenbideko ikasketak amaitu zituen geroztik, hiri honetan lakatu zen, gerra lehertu bitartean, bere anai Manuelek batera legegizonaren ogibideari ekiteko.

Baina honez gain, Santiagoko plazan zuten bulegotik euskal abertzaletasunaren taupadak Euskal Herri osoan zehar barreiatu zituzten. Manuel Irujok, Nafarroako aldundian eta beranduago Madrilgo gortetan aurrera eramane zuten inizatibak, neurri haundi batetan, Lizarraldetik bere anaiek hornituriko informazioari esker garatuak izan ziren. Lokitz edo Urbasako pago batek bezala Manuelek adar sendo eta hosto ugari eta distiratsuak zabaltzen bazituen ere, Andres, Eusebio, Josefina, bertze anaiak, Nafarroako lurrari eusten zien enbor eta sustraiak ziren. Andresi zegokionez, Lizarrako EAJko zenbait barne ardura izatea ez ezik, horko eskualdeko jendearekin lan egitea ere egokitu zitzaion 1930-36ko tartean.

Guzti hau bertan behera gelditu zen 1936ko udako altxamendu militarra zela medio. Sendi honetako partaide gehienak atxilotu eta gartzeleratuak izan ziren arren, Andres, bere anaia zen Pello Marirekin batera, uztailko 18an bertan Donostiratu ziren, hor zegoen Manuelek Erregi-

men errepublikarren alde borrokatzeko.

Uda honetan zehar Gipuzkoak izan zituen une larrietan, lurralde honen Defentsarako Juntan Ordenu publikoaren ardura eskuratu zuen Lizarratar honek. Beranduago bere anaia Manuelek Justizi ministrariaren eginbeharra hartu zuen, bera idazkari bezala lagundu zuen Madril eta Katalunyan. Gerra amaitu ostean, erbeste oso luze bati hasiera eman zion. Lehenengo urteak Frantzian igaro bazituen ere, 1940ko ekainaz geroztik estatu honetan naziak jabetu zirenetik Argentinara, bertze euskaldun anitzen legez, joan zen.

Atlantiko bertaldeko lurralde honetan, berak eta Ixaak Lopez Mendizabalek martxan jarri zuten euskaltzaleek frankismoaren urte luzeetan, atzerrian izan zuten saio kulturalik sendoa, Ekin argitaletxearena hain zuten ere. Diktaduraren urte ilunetan barrena, bi gizon hauen ahaleginei esker, euskal idazle eta kultur-gileek letretara eman zituzten Euskal Herriko funtsa politiko, kultural zein ideologikoak bermatzeko gogokoak zituzten lanak.

Andres Irujo eta Ixaak Lopez Mendizabalen argitaletxean euskal kultura eta historiografia nazionalistaren lan klasikoak (Orueta, Boissonade, Garate, Kanpionenak...) argitaratzeaz gain, orduko buruzagi politikoei (Agirre, Galindez, M. Irujo...) izkiriaturiko lekukotasun eta oroimen liburuak kalea ikusi zuten. Andres Irujok berak egunerokotasun politiko zein iragan historikoari arreta berezi bat eskeini zion bere idazlanetan. Lehenengoari dagokionez, nahikoa da aipatzea bere 'Los Vascos y la Republica' liburua. Bigarrenari buruz, 'Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos' delakoan argitaratutako makina bat artikulua eta berak elkarte honetan hartutako etengabeko ardurek arraz ongi frogatzen digute.

Horrelako lanetan, Buenos Airesko 'Laurak Bat' egoitzako gela xume batetan aritu da bere bizitza luzea itzali den arte. Berarekin batera gerra aurreko urtetako nafar abertzaileen azkenetako lekuko joan bazaigu ere, edozein biblioteka ala apalategian Ekin liburuak bat antzemango dugularik, zalantzarik gabe, Lizarrako abertzale kementsu honetaz gogoeta atsegin bezain sendoa edukiko dugulakoan gaude.



Jardunaldiak 1956tik ospatzen dira.

A. B.

Azaleko istorioak

A. B. / ARALAR

Goizeko bederatziak dira, eta kafeak eta esne beroak ateratzen duten lurrinak ez ditu oraindik espeleologoak iratzarri. Asteartea da, azken eguna, dena biltzeko eta agurrak eta diosalak banatzeko, 'hurrengorarteak' nonnahi aditzeko. Hala ere, edo horregatik, jende gutxi dago oraindik Guardetxeren atzealdean paratu diren bi kanpindenda erraldoien azpian. Lan franko egin da azken egunotan, eta ezarian-ezarian agertzen direnek nekea dute bistakoa aurpegian, soinean eta hizkeran, begiak ia zabaldu ezinean.

«Jende asko goizeko ordu bietan atera zen lezetik, barruan 15 ordu egon ondoren, eta sumatzen zaie». Patxi Azpilikueta gosariak arduratzen da. Gosariak, garbiketaz eta gauza guztiez, antolatzaleetako izanik lezean ez baitu ia sartzerik izan. Egunero Lekunberrira jaitsi, bazkaria igo, eta taldeak antolatzen aritu da, irribarrea galdu gabe. Baina oraindik dena jaso behar dute, eta zailena lezean barruan utzi behar izan dutena izan da. Dagoeneko lortu dute talde baten hitza horretarako, eta bi aste barru dena garbi egon da. «Lau pertsonaren artean zazpi ordutan egin daiteke». Harrigarria da orduetaz hitz egiten duten modua. Edozein ateraldik zazpi orduko ibilbidea eskatzen du, eta ez da arraroa 15 edo 18 ordu barruan aritzea, akaso sokak eta espitak paratzen, ez beste-

rik. Horretarako bizkor ibili behar. Hala ere, bi ustekabe soilik izan dira egun hauetan. Lehendabiziko egunean harri bat erori eta lagun bat kolpatu zuen eta azken egunean gazte bat bidean trabatu zen, bera bakarrik trabatu ere.

9.30ak dira, eta jendea pixkanaka hurbiltzen da kafea dagoen mahaira, kruasan eta tronkitoen bila. Hala ere, gehienak zakuan

Hamaika ordu barruan eman ondoren, lainoa zela eta pago baten azpian gelditu zen talde bat, hotzak akatzen eta nekeak akitzen.

daude oraindik, eta espedizioa abiatzen da zarata egitera, petardo eta guzti. Guardetxeren aurrean paratu diren dendak eta kamioi bat dira logelak, eta haizea eta euria etengabe aritu baldin badu ere, lezea baino toki aproposagoa dirudi ametsarako. Barruan egon direnak, ordea, ez dira iritzi berekoak. «Zurrunka eta

guzti aritu zen Pello, besteei loa eragozten», dio leze honetan lehendabiziko aldiz sartu den arrasatear handi batek. Denek nahia go dute bertan egon, eta ez goizeko bostetan atera ziren horiei gertatu zitzaiona jasan. Lainoa erabat sartuta, hamaika ordu barruan egon ondoren, pago baten azpian gelditu behar izan zuten, hotzak akatzen eta nekeak akitzen. Argitu zuenean, bi ordu geroago, bidea aurkitu zuten.

Petardoek eragina izan dute, eta jantokia betetzen ari da. Hamarrak dira eta Patxi ez dago prest kafe gehiago emateko. Bart parranda egin zuen garbiketa non egiten den galdetzen du. «Lau egun pasatu ondoren, ez dakizula non den garbiketako!!?». Goizeko ordu biak arte lan egiten aritu zen Lukasek bere atzetik inor ez zela sartu jakin berri du lau egunetako bizarrak moztu ondoren. «Zertarako aritu nintzen bada lanean?», «gazteak ziren, ez genien utzi sartzen», saiatzen dira azaltzen.

Bitartean, langelan, azken azterketatik ateratako datuak paperetara pasatzen ahalegintzen dira, Aralar hobeki ezagutzeko


baliagarria izango dena bere tokian paratzen. Gauza guztiak biltzen diren bitartean, talde osoari aterako zaion argazkiak eta bazkariak ari dira gehienak. Talde txiki bat, 'Petit Komiten', Hego Amerikara espedizio berri bat egiteko jaso duten gonbidapena aztertzen ari da. Baina hori beste kontu bat da...



Hirurogei bat lagun bildu dira Aralarren.

A. B.

Gazteendako Zokoa



Nafarroako Taldekako Xake Txapelketaren 3. Jardunaldiko partida. 1993ko urriaren 9an jokatu. Koldo Flores, 1.820 ELO (Arrano Elkartea)-Jesus Mena, 1.805 ELO (Casco Antiguo).

1.d4,e6; 2.c4,Zf6; 3.Zf3,d5; 4.e3,bZ-d7; 5.Ad3,c5; 6.0-0, Ae7; 7.De2,0-0; 8.b3,b6; 9.Gd1, Ab7; 10.Ab2,Gc8; 11.bZ-d2, Ze4; 12.d5,d5; 13.Aa6,Aa6; 14.Da6,dZ-f6; 15.aG-c1.

Ez zegoen gazteluaren peoia jaterik, dama galduko bailukete.

15....,Dd6; 16.c5,Zc5; 17.De2, cZ-e4; 18.Ze4,Ze4; 19.Zd4,Af6; 20.Gc8,Gc8; 21.Dg4,Dd8; 22. Zf5. Ikus koadroa. Beltzek 'Ab2' daukate. Baina, 23.Ze7 xa, De7; 24.Dc8 xa,Df8; 25.Dc2. Arrisku gehiago eramanen lukete txuriek.

22...., Gc2. Beltzen erantzunak txuriak lur jota utzi zituen.

23.Af6,Df6; 24.Gd5. Urrats okerra. Gareti ordainduko dute. Baina zein da jokaldi ona? 'Zf5' azkarregi jokatu zuten lehenago. 24....,Gc1 xa; 25.Gd1,Df5. Txuriek amore eman zuten. Kalkuluak gaizki egiteak ondorio konponezinak dakartza.

Fangeko lurra

HARITZ ANDUEZA

Tum, jeneral ixila zen. Ez zen gauza handirik, bere aberrian barrik laugarren izarretako jenerala baitzen. Bere kargu beste herrien aurkikuntza eta morrontzarako espazio-untzi bat zeukan. Bere lana planeta berriak aurkitzea zen. Bizirik ez bazegoen —gehienetan gertatzen zena—, planeta menderatu eta hurbilenera komunikatu behar zuen. Gero nahiko egun itxaron behar ziren zainketa goardia heldu arte, hauen lana mapa galaktikoak betetzea baitzen, eta horretarako planeta ikusi behar zuten. Gero beste kasu bat zegoen. Planeta bizi baina ez oso garatua. Izan daiteke bizi ertaina, mikroorganismoak, animalia sinpleak edo landareak, eta baita adimen gutxiko animaliak ere. Honelako kasuan 'PET-i' —Planeta Exploratzaile Taldeari— deitu behar zion, planeten aprobetxamendua egiteko antolatzen zirenak. Hauetxe itxaron behar zitzaizaien, eta ez gutxi, noski.

Gero hirugarren talde bat zegoen, adimena garatua zuten animalia atzeratuak zituzten planetak. Hauetxe urtebeteko jarraipena

egiten zitzaizaien, eta legeak zehazten zituen baldintzen barruan bazeuden, espazio-untziaren jeneralak esklabutasunarako talde bat eska zezakeen. Hauetxe dena normal zihola eta legeekin bat zetozela ikusten bazuten, operaziorako baimena ematen zuten. Hauetxe edozein jeneralaren ametsa hamar urtetako karrera baten ondoren. Gero eta azkenik adimena nahiko garatua zeukaten animaliak zeuden. Lehenengo urteko azterketa egin ondoren gobernu zentralera deitu behar zuen: zer kultura, energia aurreratua (atomikoa, fusiozkoa...) zuten; planetaren barruan gobernu mota on bat zuten, eta azkenik —ez oso beharrezkoa—, kanpoko espaziora joateko teknologia zuten edo ez jakiteko. Horrela izanez gero, gobernu zentralekoak harremanetan jartzen ziren planeta horren indar handienarekin. Ohore izugarria zen jeneralentzat.

Espazio-untziaren giroa nahasi zegoen. Jendea alde batetik bestera ziholan, denak beren babes-kapsulen barruan, galaxia berri batetara sartzekoak baitziren. Tum eta gida-gelakoak jendea begira zeuden, pantaila-

tik, eta beraiek ez zuten mugitu behar, bestela espazio-untzia gidaririk gabe gelditu zitekeen eta. Beraz, beraien besaulkiak kapsulak ziren.

Kapsulak itxi zirenean gida-gelako jendea ordenagailuaren esanaren zain zegoen, ordenagailuak kapsula guztiak itxeko esan arte ezin baitziren martxan jarri. Denak urduri zeuden, eta azkenean ordenagailuak agindua eman zuen. Makinak beraien indar gorenean jarri zituzten eta indar handiz galaxiaren aurka jo zuten. Azkenean galaxia ezezagun horretan sartu ziren.

—«Galaxia berrian sarturik, arazorik ez, kapsulak irekirik, prest abiatzeko, aginduen zain».

Aginduak azkar eman ziren: sistema hurbilenera joan eta gidari automatikoa jarri. Tum bere logelara joan zen eta hor gobernu zentralari mezu bat bidali zion:

—«Galaxia berri bat daukagu, Fangeko lurra haunditzen doa. Fangeko flotaren laugarren izarreko jenerala».

Mezu honi bi hilabetetako bidea gelditzen zitzaion espazioa barna, gero Fangeko gobernu militarren liburutegian hilik gelditzeko.



Montejurra (II)


Gure mendiaren hurbileko kideak ditugu horiek (Aldasur Mendixurbe, Unanuko Mendixur, Arabako Mendizur herria eta Urraulgo Aldasur), dudarik gabe. Gainera izenaren esannahia ere zertxobait argitzen digute. *Mendi* alde batetik eta *xur* bestetik. Litekeena da bigarren elementu hori *xuhur* izatea hots 'kaxkarra', 'apala', *mendixarra* edo. Hala ere ez da hori eman den edo eman daitekeen azalpen bakarra. Agian, izenaren bigarren elementua *izurra* litzateke hots 'kixkurra' edo, eta Aldasur, orduan, beste zerbait genuke. Cañada Justek, beste aldetik, honako azalpen hau ematen digu. 920. urteko uztailaren 23an, Abd al-Rahmanek Ebro ibaia zeharkatu zuen *Di-sarra* izeneko lekura joateko. Historialari horrek leku hori Ega ugaldetik hurbil kokatzen du eta haren ustez *Di* (iluzea beraz) baliteke *Dei* izatea are *Deio* edo *Deiu* ere (gogora dezagun *Di-castillo Deioko gaztelua* dela) eta *xarra* arabea litzateke gaztelarazko sierraren esannahiarekin. Era honetan *Di-xarra*, *Deioko mendia*, *Montejurra* litzateke, Egaibarreko mendirik ikusgarriena. Ene ustez kokapen aldetik azalpen sujerentea bada ere Montejurra forma eta etimologia ez du ezertan ere argitzen. *Jurra* edo *xurra* eta *xarra* edo *sierraren* artean inolaz ere igaro ez daitekeen amildegi fonetikoak irekitzen baita.

Euskal Herriko Mendizaleen Elkarteko ateratako azken katalogora joko bagenu ezustekoa hartuko genuke. *Jurramendi* espero litzateke hor, eta hara non *Mendixurra* irakurtzen dugun. Esan gabe doa bai Lur Enziklopedian (hemen *Jurramendi* dugu) eta baita katalogoan ere Euskaltzaindiaren aholku eta oharra bete dituztela aitortzen dela. Antza denez, leku izenak, berriz ere, aurkaria erabat aztoraturik utzi du. Jostailu izatetik jokalaria maltzurra izatera pasa da.

Zer egin, bada, euskaraz? *Mendixurra* ala *Jurramendi*? Bi formen artean lehendabizikoa egokiena bada ere ezin da, ene iduriko, ez bata eta ez bestea aukeratu. Izen hori ezagutu edo ahoskatzen duen euskaldunik gabe eta *Mendixurra* forma agertzen digun inolako agiri ezagunik gabe ezin da gaurko izena den gutxiena ere ukitu, are gutxiago zabaldu eta ofizialtzat hartu. Zer eginen genuke orduan noizbait eta dokumentu izkuturen batean *Bargajurra*, *Aizxurra* edo *Oyanxurra* bezalako formekin? Orain arte eskura ditugun dokumentuetatik Coleccion Diplomatica de Irache liburitik honako hau nabarmenduko nuke: *Montexurra*, *Montehurra* 1321koa. Hots, izen erdalduna ez dela atzo goizekoa.


Kontua da bide okerretekin abiatu garena. Dudaren aurrean berriz ere. *Jurramendi*, *Mendixurra*, *Montejurra*, denak nahas mahas. Serioena Montejurra erabiltzea da.

MIKEL BELASKO



KAZKARROAN

HITZ GURUTZATUAK



EZKER-ESKUIN: 1.- Harriak jaurtikitzeko arma. 2.- Litioa. Gizonezko batentzat senide emea. 3.- Jausi. Aluminioa. 4.- Ospa! Urtaro bat. 5.- Bat eta bat. Amuaren erduan. 6.- Toka eta gipuzkoan, zuen. Metal mota. 7.- Iridioa. Aintza. 8.- Lurraldeak. Interjekzioa. 9.- Auziak.

GOITI-KA-DEHIA: 1.- Bizkaiko ibaia. Zilbor. 2.- Hiri nagusia. 3.- Lehenengoa. Gipuzkoako ibaia. Kontsonante bikoitza. 4.- Hegoaldean, gara. Zein lekutara. 5.- Ihardun. Mendebalean, haiz. 6.- Asiako estatua. Bazter. 7.- Egile atzizkia. Emirerriko buruzagia. Bokala. 8.- Egokierak. 9.- Sexu eme. Portu.

N-97

Jenero Xumekoak

Ilemoztaileari aditu baino lehenagoko ariketa

Lotsagatetasun santuaren jabe bazara, ze axola behar zaizu zuri 'nork-zer-esan duen' edo 'nork-zer esango'?

JEREMIAS ERRO

Bizi Bizian

Heldu den astetik aurrera izanen da Iruñean III. Bertso Astea, eta bihar bertan, larunbata, osatu berri den Zortziko Ttikia bertsolari gazteen elkarteak antolaturiko I. Xalto Saria jokatu da Goi-

zuetan. Uda bukatua, denboraldi berria hasi da Nafarroako bertsolaritzan. Bi helburu izanen ditu: bertsolaritzak Nafarroan duen bizitasuna erakutsi eta egin diren hausnarketak plazaratzea.

Bertso denboraldiaren hasiera

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Heldu den asteartetik aurrera ospatuko da Iruñean III. Bertso Astea, mahainguru, bertso saio eta hitzaldiekin. Bi helburu izanen ditu ekitaldiak: bertsolaritzak Nafarroan duen bizitasuna erakutsi eta egin berri diren hausnarketak plazaratzea. Astea, Iruñeko Udalak antolatuta, Nafarroako Bertsolarien Lagunak elkartearen laguntzarekin, Xabier Amuriza bertsolariaren hitzaldiak zabalduko du, Jon Sarasuak 'Bertsomintza' izeneko gogoe-tarako prestatutako txosten batekin. 'Bertsolaritzaren' funtzioak izenekoak, ahozko literatura nekazaritza gifotik hirira egin duen bidaia aztertzen da bertan, ardatz nagusi baten inguruan: hizkuntzak betetzen dituen funtzio guztiak bertsolaritzak ere bete ditzakeela.

Hilak 21, osteguna, hiru txapeldunen —Jon Lopategi, Angel Mari Peñagarikano eta Manolo Arozenaren— arteko saioa izanen da, baina gairik eta gidorik gabe. «Txapela horiek lehia-keta jakin batzuetan gaiari txukun eta egoki erantzunez eskuraturutakoak dira» azaldu dute antolatzaileek, «baina gairik eta gidorik gabe uzten badugu?». Hilak 22, ostirala, bertso zaharren kantaldia eskainiko du Xabier Letek, eta hilak 26, asteartea, 'Bertsolaritzaren sustapena eta geroa' gaia duen mahainguruan izango da Joxerra Garziak, Mikel Mendizabalek eta Estitxu Fernandezek osatzen duten hirukotea.



Bertsolarien garai fuerteena pasata ere, orain da irakaskuntzaren txanda.

BERTSO SAIO APARTA


Hurrengo egunean, hilak 27, Nafarroa Berreko bertsoak abestuko ditu Erramun Martinikorenak, eta bertso saio apartak itxiko du aste hau hilaren 29an, ostirala. Bertan Andoni Egafia, Xabier Euzkitze, Jokin Sorozabal, Estitxu Arozena, Maddalen Lujanbio eta Iratxe Ibarra ariko dira kantari, hau da, hiru bertsolari profesional hiru gazteren aurka. Gainera gazteak neskak direnez bada hor berritasunik.

Bertso Aste honek zabaltzen ohi du denboraldia, nolabait esateko, eta aurrean dagoena iragartzeko balio duen bezala, gibelean utzi dena aztertzeko beta ere

ematen ohi du. Eta azterketa ezin positiboagoa. Bertso afariek gora egin dute nabarmen Malerreka, Baztan eta Sakanan, gero eta herri gehiagotan eskatzen baitira bertso saioak, batzuk punta-puntakoak. Eta toki batzutan gordetako grinak eta zaletasunak

Uda honetan gora egin dute nabarmen bertso afariek, eta gero eta saio gehiago eskatzen dira hainbat tokitan.

berpiztu dira, Sakanan kasu. «Beti esan da Sakanan ez dagoela zaletasunik» azaldu du Lontxo Aburuza elkartearen buruak, «baina konturatu gara jendea gose zela, azpian bada-goela zerbait. Adibidez, aurtan egon ziren Bittor Elizagoien, Manolo Arozena eta Estitxu Fernandez, eta, beren harridurarako, bi ordu isildu gabe egon ondoren, jendeak isilik jarraitzen zuela konturatu ziren. Azkenean agortuak sentitu eta urduri jarri ziren. Hori ez da normalean gertatzen, eta gosea eta zaletasuna badagoela erakusten du. Arzoa, baina, bertsolari falta da, bertsolari gazteek ez baitute nori jarraitu».



Lontxo Aburuza.

TXAPELKETAREN MAIZTASUNA EZBAIAN

Bukatu den urte honen gertakizun handiena izan da, nola ez, txapelketarena, horrek belaunaldi gaztea ezagutzera eman baitu, aspaldiko partez. Jendea erakarri du berriro ere bertsoetara, eta hiltzeaz zegoena berpiztu du izugarri. Baina honekin batera, gauza batzuk ere galdu dira, eta bertsolari zaharrei kalte egin die, gazteei on egin dien moduan. Iaz eztabaida izan zen horren inguruan, eta aurtan ere hika-mika franko adituko dira. «Trantsizioan dago Nafarroako bertsolaritza» dio Aburuzak, «eta hurrengo txapelketa oso gauza behartua izango da. Ikusi beharko dugu zer punturaino egin behar den horrelako ahalegin berezia». Elkartearen buruak azaldu duenez, ez da txapelketa bera ezbaian jartzen, maiztasuna baizik. «Urtero egiteak merezi ote duen eztabaidatu beharko genuke».

Gazteak, zortziko ttikian

P. U. / IRUÑEA

Urteak beritasun garrantzitsua dakar: Zortziko Ttikia elkartearen osaketa. Hamalauetik eta 30 urte bitarteko bertsolariei zuzenduta, urtean hiru alditan topaketak egitea, gazteek berez jorratu behar dituzten hausnarketak bideratzea, elkarren artean zubiak jartzea eta aurpegi gazteak plazara eramatea ditu helburuak. «Eskola mailatik helduen mailara dagoen salto hori bete nahi dugu», azaldu du Manu Gomez idazkariak, «eta, berez, nahiko gauza berria da, Gipuzkoa eta Bizkaian ez dutelako horren beharrik».

Horrelakorik sortzea ez zegoen oso garbi «bertsolariak be-

rez anarkoak baikara, eta antolakuntza den guztiari ihes egin dien diogulako», baina azkenean gorpuztu egin da, gazteek beraien bultzatuta. Hortik ere beraien jardura bideratzeko dirulaguntzak jasoko dituztelakoan daude.

I. XALTO SARIA

Ez dute, alabaina, denbora alferrik galdu eta bihar bertan, larunbata, I. Xalto Saria antolatu dute Goizuetako zineman, gaueko 10etan. 'Xalto' Andres Narbarte bertsolari goizuetarraren izenagatik izan da. Iparraldeko bat, Bortzirietako zazpi eta Sakana, Araitx, Goizueta eta Leitzako bana. «Iru-dia izan da orain arte Bortzirie-

tako bertso eskolakoak soilik ateratzen zirela, baina honen bidez beste tokietakoak ere badaudela adierazi nahi dugu».

Halaber, urtean hiru alditan topaketak egiteko asmoa dago, «gazteena baita bide berria eta bide berria egiteko teorizazioa behar da». Horretarako bertsolari ezagun eta peto batekin ariko dira topaketa hauetan. Dagoeneko Xabier Amurizarekin izan dira, Zubietan, eta aurrerantzean beste bertsolari ospetsuekin biltzekoak dira. Horietaz gain, haien arteko harremana ziurtatu nahi da. «Erraza dute Bortzirietakoek elkarrekin aritzea, baina Sakanakoek Baztangoekin zaila da. Beraz, elkartearen bidez zubiak jarri nahi dira».



Estitxu Arozena.



Jokin Sorozabal.

Pantxo Egozkue

Pilotoa

Pantxo Egozkue atarrabiarrak Europako mendiko automobilismo txapela bereganatu zuen joan den hilaren 3an Asturiasen. Txikitatik maite du berebilen mun-

dua eta bederatzi urterekin gidatzen ikasi zuenetik, ezin izan du bere bizitza gurpiletatik urrundu. Egun, Europako txapela eskuan duela, nahi zuen guztia lortu duela aitortu du.

«Nahi nuen guztia lortu dut»

EDURNE ELIZONDO / IRUÑEA

Pantxo Egozkue mexikarra da jaiotzez baina atarrabiara bihurtzez. Bederatzi urterekin ikasi zuen gidatzen eta hemeretziurtekin, Badoztaingo igoeran parte hartu zuen lehen aldiz, pilotu baimena atera eta aitari kotxea kendu ondoren. Bigarrena geratu zen aldi hartan eta orduz geroztik, berebilen munduak liluratuta, ahal zuen bezala lasterketa guztietan parte hartzen hasi zen. Inoiz espero ez bazuen ere, zerrendaren lehen postura ailegatu da eta egun, Europako irabazitako ondoren, 38 urterekin berean onena da.

EGUNKARIA.— Zein bide jarraitu duzu Europako txapeliduna izateko?

PANTXO EGOZKUE.— Lan egiten irabazitako lehen diruarekin Simca 1.000 bat erosi nuen eta harekin hasi nintzen zenbait igoeratan parte hartzen. Badoztaingoan eta abar. Ondoren, 29 urtekin, Formula 1ean eman nintuen lehen pausoak profesional modura. Emaitza onak lortu nintuen eta nere mailan aurreneko postuetan nengoen beti. Honela, 1985ean, lehen aldiz hartu nuen parte Espainiako txapelketan. Egia erran, nere burua ezer gutxi egiteko gai ikusten nuen baina lehen urtean, bigarrena geratu nintzen. Ondoren, 86, 87, 88 eta 89an txapelketa irabazi nuen eta Europako hirutan sailatu ondoren, txapela lortu dut aurten ere.

EGUNKARIA.— Zer ekarri duzu Europako txapela irabazteak?

EGOZKUE.— Beti izan nahi dudana lortzea ekarri dit. Hemenetik aurrera, Europako txapela berriro irabaztea lortzen ez badut ere, aurtengoa ez dit inork kenduko eta hori da garrantzitsuenaren neretzat. Bizi guztia eman dut hau lortzeko lanean. Hasie-

ran ez nuen nere burua hona iristeko gai ikusten baina sailatu, eta behin txapelketaren barnean egonda, egin ahal nuela jabetu nintzen.

EGUNKARIA.— Mendiko automobilismoa bezalako kirol batean zerbait lortzeko, funtsezko al da laguntzaile sendoa edukitzea?

EGOZKUE.— Laguntzaile edo babesle bat edukitzea oso garrantzitsua da diru mailan, diru asko behar baita maila honetako txapelketetan parte hartu ahal izateko. Mendiko automobilismoan kotxe on bat edo inguruan talde on bat izateko funtsezkoa da laguntzaile bat edukitzea. Nik gai honetan ez dut zorte handirik izan eta izan ditudan laguntzaile gehienak galdu ditut. Iruñeko Purroy anaiekin hasi nintzen eta Cespsakoekin ere ibili ondoren, datorren denboraldirako baliteke Central Hispano izatea nere laguntzailea. Hala ere, Formula 1a ez bezala, mendiko automobilismoak ez du hainbesteko oihartzunik komunikabideetan eta hori dela eta, ez dute errentagarritzat jotzen.

EGUNKARIA.— Askoren ustetan, biraguneak direla eta, oso arriskutsua da mendiko automobilismoa eta errotzat hartzen dituzte pilotuak.

EGOZKUE.— Bai, eta egia erran, kirol honetan jarduteko, ero xamarra egon behar da. Hala ere, kirol hau ez da jendeak uste duen bezain arriskutsua. Pilotuak badaki zer ari den egiten eta zaila da istripu bat sor dezakeen hutsa egitea. Agian arriskutsuena, errepide ertzean jartzen den jendea da, ez baitira duten eta eragin dezaketen arriskuaz jabetzen. Kontuan hartu behar da ere, pilotuak lasaitasuna behar duela, duen guztia eman behar baitu 10-15 kilometroko luzera



JOXE LACALLE

duen lasterketa batean. Erlojupekoa izanda gainera, segundu bat galtzea lasterketa galtzea izan daiteke eta horregatik kontzentrazio handia behar da. Ikusleak askotan ez dira honetaz konturatzuten.

EGUNKARIA.— Andres Vilariño eta zure artean polemika sortu da. Zer dela eta?

EGOZKUE.— Vilariño eta biok oso lagun onak izan gara orain arte, elkarrekin entrenatu izan

gara eta asko lagundu didala aitortu behar dut, ezer baino lehen. Orain haserre gaude eta egia erran ez dakit zergatik. Antza denez, 'Diario de Navarra' egunkariari nik egin nizkion adierazpen batzuk dira haserrearen sorburua. Egunkari honetako kazetariak laguntzaileak galdetu zidan, Vilariñok zergatik zuen babespen maila hori eta nik aldiz ez. Nonbait laguntzaileekiko harremanetan ona ez nintzela

Pertsona ona da Andres Vilariño, baina ez daki galtzen. Hori da arazoaren muina, galtzaile txarra dela».

erantzun nuen. Orduz geroztik, Vilariñok ez zidan hitzik ere erran. Ondoren, beste adierazpen batzuk egin zituen berak, nere garaipenak zorteak eragiten zituela erranez. Europako txapelketa berak irabaziko zuela erran zuen eta niri eskainiko zidala garaipena.

EGUNKARIA.— Txapelketa zuk irabazi ondoren, nola daude gauzak zuen artean?

EGOZKUE.— Bakoitzak bere bideari jarraitu dio. Adiskidetasun ederra izan genuen baina gertatutakoak, aurrera jarraitzeak ez duela pena merezi frogatu dit. Pertsona ona da Vilariño baina ez daki galtzen. Hori da arazoaren muina, galtzaile txarra dela.

EGUNKARIA.— Europako txapelketaren ondoren, zer?

EGOZKUE.— Espainiako txapelketa bukatzeko bi froga besterik ez dira geratzen eta oraingoz lehenengoa naiz. Baliteke aurten ere irabaztea. Lortzen badut, Europakoa eta Espainiakoa eskuratzen duen lehenengoa izango naiz. Hala ere, Europakoa lortu eta gero, bete nahi nuena bete dut. Hala ere, ahal dudana bitartean aurrera jarraitzeko asmoa dut. Neretzat beharrezkoa da. Kirol honetan biraguneak ahalik eta azkarren hartzeko gaitasuna da funtsezkoa eta oraingoz, horretan jarraitzea da nahi dudana.

NISKIJATOR

© Zaldi Eroak

